Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko irailaren 18a, asteazkena — 178 — Miércoles, a 18 de septiembre de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Belauntzako Egoarre 5.H.E.ren plan partzialaren ingurumen txosten estrategikoa.*

1. *Aurrekariak.*

Belauntzako Udalak Egoarre 5.H.E.ren plan partzialaren tramitazioa hasi du.

Aipatutako izapidetzearen markoan, 2019ko apirilaren 16an, Belauntzako Udalak idazki bat aurkeztu du, 2018ko martxoko plan partzialaren dokumentazioarekin eta 2019ko martxoko ingurumen dokumentu estrategikoarekin batera, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin eta dagokion ingurumen txosten estrategikoa igorri dezan.

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 6.2 b artikuluan xedatutakoaren arabera, plan partzialaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin behar da, udalerri mailan hedadura txikiko zonen erabilera ezartzeagatik. Modu horretan, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 29. artikulutik 32. artikulura xedatzen duen prozedurari jarraituta, ingurumen organoak kontsultak egin beharko dizkie eragindako administrazioei, pertsonei eta instituzioei, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, V. eranskinean xedatutako irizpideei jarraituz eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen txosten estrategiko bat egin beharko du, non zehaztuko den planak ondorio nabarmenak eragiten dituen ingurumenean eta, horrenbestez, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin beharko den; edota ingurumenean ondoriorik ez duen, txostenean bertan ezarritako zehaztapenen arabera.

2. *Kontsulta administrazio eta pertsona interesdunei eta jendeari oro har.*

21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraituta, eta plan partzialari eta eragindako lurralde esparruari buruzko informazioa oinarri hartuta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak interesa izan dezaketen administrazioak eta organizazioak identifikatu ditu eta kontsulta egin die. Horiei, organo sustatzaileak idatzitako dokumentazioa bidali zaie:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia (GFA).

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico del plan parcial del A.U.5 Egoarre en Belauntza.*

1. *Antecedentes.*

El Ayuntamiento de Belauntza ha iniciado la tramitación del plan parcial del A.U.5 Egoarre.

En el marco de dicha tramitación, con fecha de 16 de abril de 2019, el Ayuntamiento de Belauntza ha presentado un escrito, acompañado de la documentación del plan parcial de marzo de 2018 y del documento ambiental estratégico de marzo de 2019, para que esta Dirección General de Medio Ambiente lleve a cabo la evaluación ambiental estratégica simplificada y emita el correspondiente informe ambiental estratégico.

Según lo dispuesto en el artículo 6.2 b de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el plan parcial se somete a evaluación ambiental estratégica simplificada por establecer el uso, a nivel municipal, de zonas de reducida extensión. De esta forma, siguiendo el procedimiento establecido en los artículos 29 al 32 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el órgano ambiental debe realizar consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas, y de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre y a la vista del resultado de las consultas efectuadas, emitir un informe ambiental estratégico donde se determine, si el plan produce efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria o no los tiene, en los términos establecidos en el propio informe.

2. *Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en la información respecto a las características del plan parcial y el ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno Vasco.

EK\CV GAO-I-2019-05850

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE.

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Kantauriko Ur Konfederazioa.

— Tolosaldea Garatzen.

— Tolomendi.

— Tolosaldeko Hondakinen Mankomunitatea.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Itsas Enara Ornitologi Elkartea.

— Hiribiru 2A, 2B, 2C, 2D, 2E, 2F, 2G eta 2H etxebizitzen jabeak.

— Etxei Alai eta Arkidi etxebizitzen jabeak.

Halaber, dokumentazio oro eskuragarri egon da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren interneteko atarian (www.Gipuzkoaingurumena.eus), publikoak oro har eta beste edozein interesdunek ingurumen arloan egokitzat jotako ekarpenak egin zitzaten.

Epe hori amaituta, eta txosten hau igorri arte, honako erantzun hauek jaso dira:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak nabarmendu du aldaketaren garatu gabeko eremuak nekazaritzarako erabiltzen diren lursailak dituela iparraldean gaur egun. Horren ondorioz, aholkatzen da proposatutako garapenek nekazaritza ustiategiei atxikita egon daitezkeen eragindako lurretan sor dezaketen afekzioaren ebaluazioa egitea, beharrezkoa izanez gero, dagozkien prebentzio neurriak, neurri zuzentzaileak eta/edo konpentsatzaileak hartzeko.

— Kantauriko Ur Konfederazioak ez du oharrik egin.

— Uraren Euskal Agentziak (URA) informatu du Egoarre 5.H.E.ren inguruan ez dagoela lur gaineko ibilgurik ezta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren eremu babestuen erregistroaren barruan jasotako elementurik. Hornidurari dagokionez, datozen garapenetarako beharrezko ur bolumena zein izango den kalkulatu, eta erakunde kudeatzailearen txosten bat gehitu beharko da, eskaera berriak bermatzeko dagoen azpiegitura nahikoa dela adierazten duena. Saneamendu sareari dagokionez, informatu du udalerriko hondakin urak Zelai ibaira isurtzen direla aurretik inongo arazketa tratamendurik egin gabe, eta plan partzialean

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.

— Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial del Gobierno Vasco.

— Dirección de Atención de emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE.

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Tolosaldea Garatzen.

— Tolomendi.

— Mancomunidad de Residuos de Tolosaldea.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Haritzalde Naturaleen Elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Itsas Enara Ornitologi Elkartea.

— Propietarios de las Viviendas de Hiribiru 2A, 2B, 2C, 2D, 2E, 2F, 2G y 2H.

— Propietarios de las viviendas Etxei Alai y Arkidi.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.Gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que la zona no desarrollada de la modificación en la parte norte cuenta con terrenos destinados actualmente a la agricultura. En consecuencia, se recomienda que se proceda a evaluar la afección que los desarrollos propuestos podrían suponer sobre las explotaciones agrarias a las que pudieran estar vinculados los suelos afectados, para establecerse, en el caso de que se estimen necesarias, las correspondientes medidas preventivas, correctoras y/o compensatorias.

— La Confederación Hidrográfica del Cantábrico no formula observaciones.

— La Agencia Vasca del Agua URA informa que, en el A.U.5 Egoarre no existen cauces superficiales en el entorno ni elementos incluidos dentro del Registro de Zonas Protegidas del Plan Hidrológico de la Demarcación del Cantábrico Oriental. En cuanto al abastecimiento, se deberá realizar una estimación del volumen de agua necesario para los nuevos desarrollos e incorporar un informe del Ente Gestor sobre la suficiencia de la infraestructura existente para garantizar las nuevas demandas. Respecto a la red de saneamiento, informa que las aguas residuales del municipio se vierten al río Zelai sin ningún tratamiento de depuración previo, situación que se agravará con los futuros desarro-

EK\CV GAO-I-2019-05850

proposatutako etorkizuneko hirigintza garapenek egoera larrituko dute, eta hori kezkatzekoa da, izan ere, Zelai ibaia zati horretan jada egoera biologiko eta ekologiko ertainean baitago. Udalak isurtzeko baimena du, baina 2021eko abenduaren 31a baino lehenago komunikatu beharko du Berrobi-Ibarra kolektorera konektatu dituela hondakin urak, Uraldeko HUAn tratamendu osoa egiteko. Gaur egun, aipatutako araztegia eraikitzea aurreikusten ez denez, informatzen da plan partzialari aldeko irizpena emateko herriguneko isurien egoera hobetzea helburu duen saneamendu planteamendu bat ezarri beharko dela. Hasierako onarpenaren ondoren, Uraren Euskal Agentziak plan partzialaren nahitaezko txosten bat egin beharko duela adierazten du amaitzeko.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak, igorritako informazioa aztertu ondoren, ondorioztatu du plana gauzatzeak ez duela osasun publikoan eragin nabarmenik sortuko, ingurumen eraginaren azterketa egitean edo ebaluazio prozesua burutzerakoan kontutan hartu beharreko funtsezko alderdiak izango direnak.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak informatu du eremu horretako kultura ondarean ez dela afekziorik antzeman.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Metereologiako Zuzendaritzak informatu du aztertutako eremuan ez dela detektatu Plan Partzialaren garapenak handitu dezakeen babes zibileko arrisku nabarmenik, ezta ere ingurumen eragin nabarmenik bere eskumenen eremuan.

Erantzunak eta ingurumen txosten estrategikoa Belauntzako Udalera bidaliko dira, eta beste erantzunen bat jasoz gero, ahalik eta lasterren bidaliko da Udalera, plan partziala idazterakoan eta izapidetzean kontutan izateko.

*3. Egoarre 5.H.E.ren plan partzialaren deskribapena.*

Belauntzako Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) testu bategina behin betiko onartu zen Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko titularraren Foru Agindu bidez, 2016ko ekainaren 17an. HAPO horri ingurumen ebaluazio estrategiko bat egin zitzaion, eta prozedura horretan proposatutako jarduketak baloratu ziren eta beharrezko prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak zein berrikuste programa bat ezarri ziren.

HAPOk mugatutako eremuen artean, Egoarre 5.H.E. bizitegi alor urbanizagarria zegoen, eta HAPOren hirigintza fitxak egiturazko antolamenduaren aurreikuspenak ezartzen zituen eremu horretarako, ondorengo plan partzial baterako utziz antolamendu xehatuaren definizioa. Plan partzial hori da, hain zuzen ere, orain ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura egingo zaiona.

Egoarre 5.H.E. eremua Belauntzako herrigunetik iparmendebaldera dago kokatuta, haren beheko aldean, Ibarratik Belauntzara doan GI-3211 errepidea igotzean, Egoarre baserriaren parean. Hirigintza eremu horren zati bat lehengo Egoarre 2C hirigintzako esku hartze eremuko lurrek osatzen dute, jada eraikita eta eremuaren hegoaldean kokatuta dauden lurrek; eremu horri hemendik aurrera Egoarre Hegoaldea deituko diogu. 8.548,74 m$^2$-ko azalera du eremuak, eta bertan bizitoki erabilerako zortzi lurzati pribatu daude (finkatuta gelditzen direnak), horietako sei familia bakarreko etxeak dira eta beste biak bi bizitzako etxeak dira; guztira 10 etxebizitza. Nekazaritza erabilerarako erabiltzen den garatu gabeko gainontzeko eremuari Egoarre Iparraldea deituko diogu, eta 4.849,14 m$^2$-ko azalera du. Eremu hori 1. egikaritze-unitate bezala mugatuko da, eta bertan 12 etxebizitza libreko bizitegi garapena aurreikusten da.

llos urbanísticos propuestos por el plan parcial, lo cual es preocupante dado que el río Zelai en este tramo ya presenta un estado biológico y ecológico calificado como de moderado. El ayuntamiento cuenta con autorización de vertido pero condicionada a la obligación de comunicar antes del 31 de diciembre de 2021 la conexión de las aguas residuales al futuro colector Berrobi-Ibarra para su completo tratamiento en la EDAR de Uralde. Dado que a día de hoy no existe previsión para la construcción de dicho colector, se informa que para que el plan parcial pueda ser informado favorablemente, deberá incorporar un planteamiento en relación al saneamiento basado en la mejora de la situación de los vertidos del núcleo urbano. Finaliza exponiendo la necesidad del plan parcial de ser sometido a informe preceptivo de la Agencia Vasca del Agua tras su aprobación inicial.

— La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco, una vez estudiada la documentación aportada, concluye que la ejecución del citado plan no presenta impactos de consideración para la salud pública que supongan aspectos fundamentales que deban ser tenidos en cuenta a la hora de la realización del estudio de impacto ambiental o en el propio proceso de evaluación.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que no se aprecian afecciones en el Patrimonio Cultural en dicho ámbito.

— La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología informa que no se han detectado riesgos de protección civil significativos en el ámbito de estudio que el desarrollo del Plan Parcial pudiera incrementar ni impactos ambientales significativos en el ámbito de su competencia.

Las respuestas, junto con informe ambiental estratégico, serán remitidas al Ayuntamiento de Belauntza, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida al Ayuntamiento en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación del plan parcial.

*3. Descripción del plan parcial del A.U.5 Egoarre.*

El Texto Refundido de Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Belauntza fue definitivamente aprobado por Orden Foral de la titular del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio con fecha 17 de junio de 2016. Este PGOU fue sometido al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, durante el cual se valoraron las actuaciones propuestas y se establecieron las medidas preventivas y correctoras necesarias así como un programa de supervisión.

Entre los distintos ámbitos que delimitaba el PGOU, se encontraba el sector urbanizable residencial denominado A.U.5 Egoarre, ámbito para el que la ficha urbanística del PGOU establecía las previsiones en materia de ordenación estructural, remitiendo a un posterior plan parcial la definición de la ordenación pormenorizada. Este plan parcial que es el que ahora va a ser sometido al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada.

El A.U.5 Egoarre se localiza al Noroeste del casco urbano de Belauntza, en la parte baja del mismo, según se sube desde Ibarra hasta Belauntza por la carretera GI-3211, frente a Egoarre baserria. Parte de dicho ámbito urbanístico está constituido por los antiguos suelos de la A.I.U. 2C Egoarre, ya edificados, sitos en la zona sur del mismo y que, en adelante, denominaremos Egoarre Sur. Esta área ocupa una extensión superficial de 8.548,74 m$^2$ y en la misma existen ocho parcelas residenciales privadas que se consolidan, seis de las cuales están destinadas a vivienda unifamiliar y dos parcelas a vivienda bifamiliar; lo que hace un total de 10 viviendas. El resto de la superficie del ámbito corresponde a la zona sin desarrollar destinada a usos agrarios que denominaremos Egoarre Norte, y que ocupa una extensión superficial de 4.849,14 m$^2$. Esta área quedará delimitada como U.E.1 en el plan parcial, y en la misma se prevé un desarrollo residencial de 12 viviendas libres.

EK\CV GAO-I-2019-05850

Plan partzialean proposatutako antolamenduak oinarri izango du herrigunera doan bide publikoaren eta lehendik dagoen bidearen arteko elkargunearekin bat egiten duen komunikazio bide bat. Elkargune hori Egoarre hirigunearekin lotuko duen eskailera baten hasiera izango da, baita eremuaren iparraldearekin lotuko duen eta eremua bera ezkerreko eta eskuineko lurzatietan banatuko duen bide baten abiapuntua ere. Horrela, bidearen ezkerrean, goranzko noranzkoan, 4 lurzati eratuko dira bizitoki erabilerarako (horietako bi familia bakarrekoak, eta bi bi bizitzakoak), eta eskuinean, goranzko noranzkoan, 6 etxebizitza atxiki eraikitzeko erabiliko den lurzati bat. Gainera, bi aparkaleku publiko sortuko dira lurgainean, guztira 24 aparkalekurekin. Proposatutako gainontzeko esku hartze guztiak Egoarre Iparraldean espazio publikoak egokitzeko izango dira, eta horien artean nabarmentzekoa da, Etxe-alairen aurrean sortuko den berdegunea.

Plan partziala idaztean, bi hautabide aztertu dira: 0 hautabidea edo plana ez aplikatzearena, eta 1 hautabidea edo plan partziala egitearena.

Baztertu egiten da 0 hautabidea Belauntzako HAPOn aurreikusitako jarduketa bat gauzatzea eragotziko duelako, eta beraz, zentzuzkoena 1 hautabidea dela irizten da.

Ez da antolamendu hautabiderik proposatu Egoarre Iparraldea eremuan.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideen araberako azterketa.*

Egoarre 5.H.E.ren plan partzialaren eremuaren iparraldeari dagokionez, lursailek ekialdetik mendebaldera batez beste % 25eko beheranzko malda dute. Kota tartea dago baita ere alde baxuaren (bidea hasten den tokia), eta alde altuaren, Etxe-alaitik gertu dagoen lursailen artean. Lur horiek nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabiltzen dira gaur egun –sega belardiak–.

Eremua ez dago Natura 2000 Sareko espazioen barruan edo horietako batetik gertu edo haren natura-interes altuarengatik babestuta dagoen beste mota batzuetako enklabeetatik gertu. Ez dago EAEko igarobide ekologikoen sarearen barruan. Eremuaren barruan ez dago katalogatutako ondare historiko artistiko edo arkeologikorik, eta ez dago ere babestutako paisaia batean kokatuta.

Eremuaren hegoaldea antropizatua dago, baina iparraldean garrantzi komunitarioko habitat bat antzeman da, 6510 «garaiera gutxiko belar gutxiko zelaiak».

Ez dago ubiderik eremuaren barruan, eta beraz, ez dago uholde arriskurik.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean oinarritutako azterketari dagokionez:

1. Planaren ezaugarriak. Planak Belauntzako HAPOk eremuarentzat ezarritakoa zehaztuko du, eta, horretarako, plangintza nagusi horren ingurumen ebaluazio estrategikoko prozesuan zehar ezarritako ingurumen zehaztapenak txertatu beharko ditu. Ez du eraginik sortuko beste plan edo programa batean. Eremuaren iparraldea urbanizatze eta birpartzelazio proiektu baten zein dagozkion eraikuntza proiektuen bidez garatuko da; proiektu horietan plan partzialarekin batera doan ingurumen dokumentu estrategikoan diseinatutako babes neurriak eta neurri zuzentzaileak, eta honako ingurumen txosten estrategiko honetan ezarritakoak aplikatu beharko dira. Azkenik, antzemandako ingurumen arazo nabarmen bakarra ez da eremuarena soilik, udalerri osoarena baizik: herriguneko isurien arazketa sistemarik ez izateak ondorio kaltegarriak ditu Zelai ibaiaren uraren kalitatean.

2. Eraginen eta eragin litekeen eremuaren ezaugarriak. Ez da detektatu interesgarriak diren ingurumen baliorik, «garaiera gutxiko belar gutxiko zelaiak (6510)» garrantzi komunitarioko habitata izan ezik, nahiz eta Gipuzkoan oso habitat ohikoa izan.

La ordenación propuesta en el plan parcial se basará en un vial de comunicación que «pincha» el vial existente en el encuentro con el camino público de acceso al casco. Este pinchazo será también el punto de arranque de una escalinata que comunicará Egoarre con el casco y de un vial que comunicará con la parte norte del ámbito y que dividirá el mismo creando parcelas a izquierda y derecha. Así, a la izquierda del vial, en sentido ascendente, se situarán 4 parcelas residenciales, de las que dos serán unifamiliares y dos bifamiliares, mientras que a la derecha, en sentido ascendente, se encontrará una parcela residencial destinado a 6 viviendas adosadas. Además, se crearán dos zonas destinadas a aparcamientos públicos en superficie, con un total de 24 plazas. El resto de las intervenciones propuestas consistirán en el acondicionamiento de los espacios públicos de Egoarre Norte, entre los que destaca, la creación de una amplia zona verde delante de Etxe-alai.

En los trabajos de redacción del plan parcial, se han analizado dos alternativas: la Alternativa 0 o de no aplicación del plan y la Alternativa 1 o de ejecución del plan parcial.

Se rechaza la alternativa 0 porque impediría la efectiva materialización de una de las actuaciones previstas en el PGOU de Belauntza, considerándose, por tanto, la Alternativa 1 como la más razonable.

No se proponen alternativas de ordenación dentro del área Egoarre Norte.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

Por lo que se refiere al área norte del ámbito del plan parcial de A.U.5 Egoarre, los terrenos tienen una pendiente descendente media del 25 % de este a oeste. También hay una diferencia de cota entre la parte baja en la que arranca el vial hasta la parte alta del terreno, próximo a Etxe-alai. Estos suelos se destinan actualmente a usos agropecuarios –prados de siega–.

Esta área no está incluida ni cerca de ningún espacio de la Red Natura 2000 o de otro tipo de enclave protegido por su elevado interés naturalístico. No está dentro de la red de corredores ecológicos de la CAPV. Tampoco cuenta en su interior con patrimonio histórico artístico o arqueológico catalogado, ni se enmarca dentro de un paisaje protegido.

El sur del ámbito está antropizado pero en el área norte se ha detectado el hábitat de interés comunitario 6510 «Prados pobres de siega de baja altitud».

No existen cursos de agua en su interior por lo que tampoco existen riesgos de inundabilidad.

Por lo que respecta al análisis en base al anexo V de la Ley 21/2013 de evaluación ambiental:

1. Las características del plan. El plan concretará lo establecido para esta área por el PGOU de Belauntza y, para ello, deberá incorporar, asimismo, las determinaciones ambientales que fueron establecidas durante el proceso de evaluación ambiental estratégica de dicho planeamiento superior. No causará efecto sobre ningún otro plan o programa. El área norte del ámbito se desarrollará mediante un proyecto de urbanización y reparcelación así como por los correspondientes proyectos de edificación, que tendrán que aplicar las medidas protectoras y correctoras diseñadas en el documento ambiental estratégico que acompaña al plan parcial así como las establecidas en el presente informe ambiental estratégico. Finalmente, el único problema ambiental significativo que se detecta no es exclusivo de este ámbito sino de la totalidad del municipio: la falta de un sistema de depuración de los vertidos del núcleo urbano que influye negativamente en la calidad de las aguas del río Zelai.

2. Las características de los efectos y del área probablemente afectada. No se detectan valores ambientales de interés excepto la presencia del hábitat de interés comunitario prados pobres de siega de baja altitud (6510), aunque este es un hábitat muy común en Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2019-05850

Eremuari eragiten dioten arriskuei dagokienez, akuiferoen arriskua ertain-handia da, eta higadura sortzeko arriskua dago.

Ingurumen kalitatearen gehienezko mugak edo helburuak gainditzeari dagokionez, ingurumen dokumentu estrategikoan jaso da plan partzialaren azterketa akustiko bat, eta bertan baloratu dira gertuko bide sistemak –GI-3211 errepidea– eremuan izango duen eragina, eta 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, ezarritako soinuaren kalitate helburuak zein gradutan betetzen diren. Egindako neurketetatik funtsean ondorioztatu da egunean zehar erregistratu den zarata maila jada badauden edo etorkizunean garatuko diren etxeguneei eskatzen zaien muga baino askoz ere baxuagoa dela, eta beraz, helburu horiek aise betetzen ditu. Aurreko emaitzak ikusita, ez da proposatu 213/2012 Dekretuko 39. artikuluan jasotako hautabideen azterketarik ezta 40. artikuluan jasotako neurrien definiziorik ere.

Ingurumen azterketa estrategikoan bereizitako eraginak bere osotasunean bateragarriak direla iritzi da; hala ere, ingurumen azterketa estrategikoak ez ditu aztertu honako bi eragin hauek:

— Nekazaritzako jardueretan duen eragina. Gaur egun eremua lurzoru urbanizagarria den arren, eta, ondorioz, Nekazaritza eta Basozaintzako LAParen aplikazio eremuan ez dagoen arren, SIGPACen arabera, (Nekazaritza Lursailen Identifikazio Geografikoko Sistema) iparraldeko eremua garatu gabe dago eta larre bezala erabiltzen da. Ingurumen dokumentu estrategikoan ez da zehazten lur horiek nekazaritza ustiategi bati atxikita dauden edo ez, eta beraz, ez da baloratu zein eragin izango lukeen ustiategiaren bideragarritasunean eremua etxebizitza erabilerarako erabiltzeak; eta hori kontuan hartu beharreko alderdi bat da, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak aldez aurreko kontsultetan emandako erantzunaren arabera.

— Ustiapen faseak irauten duen bitartean baliabide hidrikoetan izango duen eragina. URA agentziak, aldez aurreko kontsulten erantzunetan, agerian uzten du Belauntzako hiriguneko hondakin urak, Berrobi-Ibarra kolektorea oraindik ez dagoenez, zuzenean Zelai ibaira isurtzen direla, aurretik inongo arazketa tratamendurik egin gabe. Hortaz, plan partzialaren eremuan sare bereizi bat instalatu arren, ingurumen dokumentu estrategikoan ezartzen den bezala, horrek ez du galaraziko hondakin urek Zelai ibaiko uraren kalitatean eragitea. Hortaz, neurri zuzentzailearekin batera, URA agentziaren txostenean zehazten den bezala, hiriguneko isurien egungo egoera hobetzeko planteamendu bat aurkeztu beharko da; Agentziari funtsezkoa iruditzen baitzaio plan partzialaren aldeko txostena igorri ahal izateko.

Ondorioz, aurrekoari jarraikiz eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 31. artikuluan dioenari jarraikiz, eta 22/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, aurreikusten duenari jarraikiz, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Ingurumen Txosten Estrategiko hau egiten du, termino hauetan:

*Lehenengoa.* Ez da egingo Egoarre 5.H.E.ri dagokion plan partzialaren ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta, izan ere, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, V. eranskinean ezarritako irizpideei jarraituta egindako analisiaren arabera, eta egindako kontsulten emaitzak kontutan hartuta, ondorioztatu baita, ingurumen txosten estrategiko honetako 2. apartatuan ezarritako baldintzak betez gero, ez duela ondorio negatibo adierazgarririk sortuko ingurumenean.

*Bigarrena.* Egoarre 5.H.E.ren plan partzialak eta haren ingurumen dokumentu estrategikoak ingurumenari dagokionez honako babes neurri eta neurri zuzentzaile hauek txertatuko dituzte:

1. Plan partzialak nahitaez bete beharko ditu ingurumen dokumentu estrategikoan proposatutako babes neurria zuzentzaileak eta/edo konpentsatzaileak, baita jarraipen programa

En cuanto a los riesgos que afectan al ámbito, presenta una vulnerabilidad de acuíferos de media a alta y riesgos de erosión.

En lo que se refiere a la superación de valores límite o de objetivos de calidad ambiental, el documento ambiental estratégico incluye un estudio acústico del plan parcial, en el que se valora el impacto que tendrá en el ámbito el sistema viario cercano –la carretera GI-3211–, así como el grado de cumplimiento de los objetivos de calidad sonora establecidos en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La conclusión fundamental de las medidas realizadas es que el valor registrado de nivel de ruido durante el día está muy por debajo de los límites exigibles a áreas residenciales tanto a las existentes como a futuros desarrollos, cumpliéndose holgadamente dichos objetivos. A la vista de los anteriores resultados, no se ha planteado el estudio de alternativas contemplado en el artículo 39 del Decreto 213/2012 ni la definición de medidas del artículo 40.

La totalidad de impactos diferenciados en el estudio ambiental estratégico son considerados compatibles; sin embargo, el estudio ambiental estratégico no ha analizado los dos siguientes impactos:

— Impacto sobre actividad agraria. Aunque el ámbito está clasificado en la actualidad como suelo urbanizable y, por tanto no está incluido en el ámbito de aplicación del PTS Agroforestal, su área norte está sin desarrollar y se destina a pastizal según el SIGPAC. En el documento ambiental estratégico no se informa si realmente estos suelos están asociados a una explotación agraria y, por tanto, tampoco se valora el impacto que su destino a uso residencial podría tener sobre la viabilidad de una de ellas, aspecto que debería tenerse en cuenta según la respuesta a consultas previas de la Dirección de Agricultura y Ganadería.

— Impacto sobre los recursos hídricos durante la fase de explotación. En su respuesta a consultas previas, la agencia URA pone en evidencia que las aguas residuales del núcleo urbano de Belauntza, a falta del colector Berrobi-Ibarra, son vertidas directamente al río Zelai sin ningún tratamiento de depuración previo. Por tanto, aunque se instale una red separativa en el ámbito del plan parcial, tal y como se establece en el documento ambiental estratégico, esto no impedirá la afección de las aguas residuales del ámbito sobre la calidad del agua del río Zelai. Por tanto, esa medida correctora deberá ir acompañada, tal y como se establece por la agencia URA en su informe, en un planteamiento de mejora de la situación actual de los vertidos del núcleo urbano, condición que dicha agencia considera indispensable para poder emitir informe favorable al plan parcial.

En consecuencia, de acuerdo con todo lo anterior y según lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y, en virtud de lo previsto en el del Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, esta Dirección General de Medio Ambiente emite el presente Informe Ambiental Estratégico en los términos siguientes:

*Primero.* No someter el plan parcial del A.U.5 Egoarre a evaluación ambiental estratégica ordinaria ya que, de acuerdo con el análisis efectuado de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, y teniendo en cuenta el resultado de las consultas realizadas, se concluye que, siempre que se cumplan los términos que se establecen en el apartado segundo de este informe ambiental estratégico, no se van a producir efectos negativos significativos sobre el medio ambiente.

*Segundo.* El plan parcial del A.U.5 Egoarre y su documento ambiental estratégico incorporarán las siguientes medidas de protección y corrección ambiental:

1. El plan parcial deberá adoptar, con carácter preceptivo, el conjunto de medidas protectoras correctoras, y/o compensatorias propuestas en su documento ambiental estratégico así

EK\CV GAO-I-2019-05850

ere. Horretarako, plana osatzen duten dokumentuen zerrendan gehituko dira ingurumen dokumentu estrategikoa eta haren eranskina –azterketa akustikoa–. Era berean, hirigintza arauetan ezarri beharko da izaera arauemailea izango dutela 8. apartatuak Ingurumen integrazioa: babes neurriak, neurri zuzentzaileak eta/edo konpentsaziozkoak eta 9. apartatuakIngurumen dokumentu estrategikoaren ingurumen jarraipeneko programa, ingurumen txosten estrategiko honetan jasotakoarekin batera, eta hirigintzako esku hartzea zehaztapen horietara egokitu beharko da.

2. Ingurumen azterketa estrategikoan jasoko da iparraldeko eremuko larrearen urbanizatzeak larre hori atxikia duen nekazaritza ustiategiaren bideragarritasunean izango duen eraginaren azterketa bat. Horretarako erreferentzia modura har daiteke Nekazaritzako eta Basogintzako Alorreko Lurralde Planean ezarritakoa «planak aplikatzeak eta obrak edo jarduerak egiteak nekazaritzaren sektorean sortutako eragina ebaluatzeari» dagokionez. Aipatutako ebaluazioaren emaitzaren arabera, beharrezkoa izanez gero, dagozkion prebentzio neurriak, neurri zuzentzaileak eta/edo konpentsaziozkoak hartuko dira.

3. Funtzionamendu fasean lurgaineko hidrologian dituen eraginen analisia aldatuko da, kontutan hartzeko Belauntzako udalerrian ez dela hondakinen uren arazketarik egiten. Horrez gain, eragin horrekin zerikusia duen planteamendua gehitu beharko da babes neurri eta neurri zuzentzaileen artean.

4. Ingurumen arloko praktika onen eskuliburu bat egingo da obren faserako, bertako langileek erabil dezaten. Obrak irauten duten bitartean akustikaren kalitatea babestea kontutan hartuko da, bizitegi zona bat gertu baitago.

5. Ingurumen azterketa estrategikoan diseinatutako babes neurriak eta neurri zuzentzaileak berrikusiko dira, eremuaren hirigintza fitxaren 7. apartatuan «ingurumen baldintzak» oraindik kontutan hartu ez diren neurriak txertatzeko. Esaterako:

— Lurra mugitzean, bai urbanizatze-lanak egitean bai birlandaketa lanak egitean, neurriak hartuko dira prozesu inbaditzaileak sor ditzaketen landare espezie arrotzak kontrolatzeko.

— Aintzat hartu beharko dira bizitoki erabilerako garapenetan sortutako hiri hondakinak biltzeko eta kudeatzeko sistemak.

— Neurriak hartuko dira efizientzia energetikoa sustatzeko eta natur baliabideak aurrezteko (energia, ura, etab.). Zentzu horretan, kontutan hartu beharko dira 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, emandako jarraibideak. Horrela, jasangarritasun energetikoaren azterketa bat gehitu beharko da ingurumen azterketa estrategikoan, 7.2 artikuluan ezarritako edukiarekin, eta aztertu beharko da 42 eta 43. artikuluetan bizitegi sektorerako zehaztutako betebeharrak txertatzeko aukera.

6. Aurreikusitako urbanizatzeak eta eraikitzeak jasangarriagoa den eta klima aldaketari hobeto egokitzen zaion eraikuntza eredu bati egokitzeko, kontutan hartu beharko lirateke ondorengo argitalpenetan datozen ingurumen arloko neurriak eta praktika onak. «Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren gida EAEko etxebizitzetarako» (IHOBE/argitalpenak web orrian), «Irtenbide naturalak EAEko toki-esparruan klima-adaketara egokitzeko» (udalsarea 21/argitalpenak web orrian) eta «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» (Udalsarea 21, 20 b zk koadernoa).

7. Plan partzialaren dokumentazioari gehituko zaizkio hornidura eskaera berrien kuantifikazioa eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren adostasun txostena; txosten horrek justifikatu beharko du hornidura azpiegiturek gaitasuna dutela plan partzialaren garapena dela eta sortutako behar berriak asetzeko.

como el programa de seguimiento. A estos efectos, el documento ambiental estratégico y su anexo –el estudio acústico– se incluirán en la relación de los documentos constitutivos del plan. Asimismo, en las normas urbanísticas se deberá establecer el carácter normativo de los apartados 8. Integración ambiental: medidas protectoras, correctoras y/o compensatorias y 9. Programa de seguimiento ambiental del documento ambiental estratégico, complementados con lo dispuesto en este informe ambiental estratégico, a cuyas determinaciones deberá ajustarse la intervención urbanística.

2. Se incluirá en el estudio ambiental estratégico un análisis del impacto que la urbanización del pastizal del área norte supondrá en la viabilidad de la explotación agraria a la que esté vinculado. Para ello, podrá tomarse como referencia lo establecido en el PTS Agroforestal en relación a la «Evaluación de la afección sectorial agraria ocasionada por la aplicación de planes y por la realización de obras o actividades». En función del resultado de dicha evaluación, se establecerán, si se estiman necesarias, las correspondientes medidas preventivas, correctoras y/o compensatorias.

3. Se modificará el análisis de impactos sobre la hidrología superficial en fase de funcionamiento para tener en cuenta la ausencia de depuración de aguas residuales del municipio de Belauntza. Asimismo, se deberá incluir entre las medidas protectoras y correctoras un planteamiento en relación con este impacto.

4. Para la fase de obras, se desarrollará un manual de buenas prácticas ambientales para su utilización por el personal de la obra. Entre los aspectos a tener en cuenta y vista la cercanía de una zona residencial, se encontrará la protección de la calidad acústica durante el desarrollo de las obras.

5. Se revisarán las medidas protectoras y correctoras diseñadas en el estudio ambiental estratégico para incluir aquellas establecidas en el apartado 7 Condiciones ambientales de la ficha urbanística del área que no estén ya consideradas. Así por ejemplo:

— Durante el movimiento de tierras tanto durante la realización de las obras de urbanización como en tareas de revegetación final, se adoptarán medidas de control de especies vegetales alóctonas susceptibles de generar procesos invasivos.

— Se deberán tener en cuenta los sistemas de recogida y gestión de los residuos urbanos generados en los desarrollos residenciales.

— Se adoptarán criterios que potencien la eficiencia energética y de ahorro de recursos naturales (energía y agua, etc.). En este sentido, se deberían tener en cuenta las directrices contenidas en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la comunidad autónoma del País Vasco. Así, se debería incluir en el estudio ambiental estratégico un estudio de sostenibilidad energética con el contenido establecido en el artículo 7.2 y estudiar la posibilidad de incorporar las obligaciones para el sector residencial establecidas en sus artículos 42 y 43.

6. A fin de conseguir que la urbanización y las edificaciones previstas se ajusten a un modelo de edificación y construcción más sostenible y adaptado al cambio climático, se deberían considerar el conjunto de medidas y buenas prácticas ambientales contenidas en las siguientes publicaciones: «Guía de Edificación sostenible para la vivienda en la CAPV» (en hoja web de IHOBE/publicaciones), «Soluciones Naturales para la adaptación al cambio climático en el ámbito local de la CAPV» (en hoja web de udalsarea 21/Publicaciones) y «Manual para el diseño de jardines y zonas verdes sostenibles» (Cuaderno Udal-Sarea 21 n.º 20 b).

7. Se incluirá dentro de la documentación del plan parcial la cuantificación de las nuevas demandas de abastecimiento, así como el informe de conformidad del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa que justifique la capacidad de las infraestructuras de abastecimiento para dar servicio a las nuevas necesidades originadas por el desarrollo del plan parcial.

EK\CV GAO-I-2019-05850

8. Ingurumen dokumentu estrategikoan proposatutako zaintza programa aldatu egingo da, ingurumen txosten estrategiko honetan ezarritako babes neurrien eta neurri zuzentzaileen betearazpenari buruz beharrezkoak diren kontrolak txertatzeko. Horrez gainera, eremuaren hirigintza fitxaren 7. apartatuan –Ingurumen baldintzak– proposatutako kontrolak gehituko dira, besteak beste, bizitegi eremuan soinu kalitatearen helburuak betetzen direla egiaztatzea, 213/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak, 35. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, beharrezko aurrekontua zehaztu beharko da ikuskatze programaren fase desberdinak garatzeko. Azkenik, errepikapenak saihesteko, komenigarria izango litzateke ikuskatze programa hau HAPOrako ezarritakoarekin koordinatzea.

*Hirugarrena.* 21/2013 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen txosten estrategiko honek indarra galduko du eta dagozkion ondorioak sortzeari utziko dio Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta gehienez ere lau urteko epean proiektua onartuko ez balitz.

*Laugarrena.* Agindua ematea ingurumen txosten estrategiko hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta zuzendaritza honen web orrian argitaratzeko.

Donostia, 2019ko irailaren 11.—Mónica Pedreira Lanchas, Ingurumeneko zuzendari nagusia. (5850)

8. El programa de vigilancia propuesto en el documento ambiental estratégico se modificará para incorporar los controles sobre la ejecución de las medidas protectoras y correctoras establecidas en el presente informe ambiental estratégico que sean necesarios. Asimismo, se incorporarán los controles propuestos en el apartado 7 Condiciones ambientales de la ficha urbanística del ámbito, tales como la verificación del cumplimiento de los objetivos de calidad acústica en esta área residencial según se establece en el artículo 35 del decreto 213/2012 de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Asimismo, se deberá definir el presupuesto necesario para su desarrollo en las diferentes fases del programa de supervisión. Finalmente, a fin de evitar redundancias, sería conveniente que este programa de supervisión se coordinara con el establecido para el PGOU.

*Tercero.* De acuerdo a lo establecido en el artículo 31.4 de la Ley 21/2013, el presente informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la aprobación de la modificación en el plazo máximo de cuatro años desde su publicación.

*Cuarto.* Ordenar la publicación del presente informe ambiental estratégico en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de esta Dirección.

San Sebastián, a 11 de septiembre de 2019.—La directora general de Medio Ambiente, Mónica Pedreira Lanchas. (5850)

EK\CV GAO-I-2019-05850